

Suplemento de la Revista

“PRINCIPE DE VIANA”

EXCMA. DIPUTACION FORAL DE NAVARRA (SECCION PARA EL FOMENTO DEL VASCUENCE)

Pamplona - febrero - 1966



RONCESVALLES

EN el reciente Symposium de Prehistoria y Etnografía organizado en Pamplona por la Institución Príncipe de Viana, quedó grabada una inquietud en la mente de todos: El vascuence se muere en Navarra.

En realidad el vascuence se está muriendo desde hace siglos. Todavía no hace uno que se hablaba a las puertas de Tafalla y durante estos cien años se ha replegado al Norte de Pamplona. Realmente es casi un milagro que todavía se hable por setenta mil navarros, teniendo en cuenta que el vascuence no es idioma utilitario y que tampoco ha tenido una espléndida vida literaria.

Si el vascuence se muere en Navarra será porque los navarros son indiferentes a la extinción de este misterioso legado de nuestra antigüedad. Pero si los navarros quieren, el vascuence no morirá y se hermanará con el

glorioso idioma nacional sin menoscabo de nuestra propia cultura. Al contrario, signo de cultura será poseer el vascuence junto al castellano, como es signo de cultura amar y cultivar lo que es bello, propio y ancestral.

«RONCESVALLES» quiere cooperar en esta tarea que es a la vez sentimental y cultural y que está en la propia línea de nuestra Institución «Príncipe de Viana» a quien ninguna cosa del sentimiento y de la cultura navarra le es indiferente. Antes bien, «Príncipe de Viana» estima que el vascuence, una vez muerto, no se podrá restaurar como los Monasterios y los Castillos. Y si el vascuence muere habrá desaparecido un verdadero Monumento Nacional de nuestra española patria.

«RONCESVALLES» se abre a los escritores y lectores navarros y no navarros que sientan amor al vascuence. Amor puro, sin trastienda ni complicaciones.



España'ko berriak

Urtearen ondar-egunean nahi izaten da ez dain urte-berria, joana baiño txarragoa izan. Guk esan dezakegu 1965'gna ez dela España-rendako txarra izan.

Gure industria gora dioa; urte batez, eunendako, amarrez gehiago lan egin da. Batez ere burni, porlan, automobil eta kimiketan. Azkeneko lau urte auetan 60 % jaso da lantegitako lana. Beste edozein erritan baiño gehiago.

Amabi ilabetez 172.000 langientzat irabazbidea sortu da gure artean. Denbora ontan 300.000 nekazarik utzi dute beren lurra.

Nekazantzak ez du asko irabazi. Urte ontan erositako tractor eta tresneria 1964'an bezalatsu izan da.

Euri asko egin du, izotz gutxi; lurreko etorkizuna airean dago.

Gauzak izarretara joate ori eragotzi nahi luke Gobernuak. Nekazarien eta fabrika berrien laguntzak ez beste guziak moztu ditu.

Gibraltar eskuratu nahi lukete gure agintariak.

Franko'k Barreiros lantegiak ikustatu ditu. Eldu den urtean 200.000 auto egingo omen ditu. Ogei ta bost milla langille dauzka bere mendeen. Lau milla millon peseta sartu dira urte batez lantegi oietan.

Urtetik urtera kanpotar gehiago eldu zaigu uda denboran. 1965'an bi millon ta erdi automobil ibilli dira Irun'go zubitan.

El día de San Silvestre se desea que el año próximo no sea peor. Pero 1965 no ha sido malo, ni mucho menos, para España.

La industria va para arriba y sus productos han crecido en un 10 % durante el año pasado, especialmente en la química, el automóvil, el cemento y la siderurgia. En los últimos cuatro años la industria española ha crecido en producción casi un 60 %. Más que en los países industriales y desarrollados.

Durante el año pasado han aparecido 172.000 nuevos puestos de trabajo en la industria. En el mismo tiempo, 300.000 personas se han marchado del campo a la industria, a los servicios y a la emigración.

El campo no ha mejorado mucho. El número de tractores y cosechadoras compradas en 1965 es más o menos igual que el de 1964. Ha llovido mucho en general pero ha helado poco y las impresiones de cosecha son un tanto dudosas.

El Gobierno toma medidas para evitar la subida de los precios y la especulación. Se restringen los préstamos que no vayan directamente a mejorar la producción industrial y agrícola.

En la vida política resalta la justa demanda de España sobre Gibraltar y la visita de S. E. el Generalísimo a la factoría de Barreiros, empresario famoso en el mundo. Barreiros construirá 200.000 automóviles para el próximo año. Barreiros tiene más de 25.000 obreros y durante el año pasado ha invertido en su industria más de 4.000 millones de pesetas.

España se incorpora cada vez más al mundo de la ciencia y como signo de ello el Ministerio de Educación se titulará de Educación y Ciencia.

La posición de España en el turismo mejora cada año. En 1965 cruzaron los puentes internacionales de Irún cerca de 2.500.000 vehículos.

Mundu zabalean



Mundua bakearen billa.

Kachemira'n, India ta Pakistan'en arteko auzi zaharrean pakea nahi luke.

Indotxina'n ere bai. Ipar-Ameriketak eguzki aldeko komunistekin duen borroka da au. Indotxina galtzeak asko ta asko esan nahi luke Afrika aldeko bidetan. Australiako etorkizuna ere ontan dago.

Kachemira'n paketu dira; ez ala Indotxina'n. Aita Sandua alguzia egiten ari da bere aldetik eta munduaren begiak beregan daude.

Emakume bat, Indira Ghandi, India'ko lendakari. Buruaustekorik aundiena goseak ematen dio. Gero gaixotasunak (eritasunak), jakitateak eta beste.

India ikaragarri aundia da: 3.270.000 km². Baditu 450 milloi arima. Urtean amabi milloi jayotzen zaizkio; esan nahi da, amabi ilabete aski dituela New-York bezalako iri bat betetzeko.

Ruso'en, «Lunik 9» izeneko zirtak, ilargia jo du.

El mundo busca la paz.

La paz en Cachemira que es un viejo litigio entre la India y el Pakistán.

La paz en Indochina, donde se enfrentan los Estados Unidos y el comunismo oriental. La pérdida de Indochina significaría el dominio comunista sobre las rutas a todo el SE. asiático y la amenaza sobre Australia, el Continente menos poblado del mundo.

En Cachemira se llegó a un resultado feliz. En Indochina parece que no. El Santo Padre realiza esfuerzos profundos en los que el mundo pone su esperanza.

Una mujer, Indira Ghandi, es elegida Presidente de la India. Su primer problema es el hambre. Y después la enfermedad, la cultura, etc. ¿Qué es la India?

Un verdadero Continente, con 3.270.000 kilómetros cuadrados y 450 millones de habitantes. Cada año la población de la India aumenta en 12 millones de habitantes, es decir, como la población entera de Nueva York.

El Mercado Común sigue adelante después de haber pasado un grave peligro a causa de la actitud francesa.

Un proyectil ruso, el Lunik 9, ha dado en la luna.



Naparroko bizimodua

Naparroak bide onez darama bere aurreramenak. Lantegi berriak sortzen ari dira bere lur zabalean. Iruñen eta Tudela'n, alde bat; eta Estella, Tafalla, Aoiz, Sangüesa, Viana, Fitero eta Lodosa, erribera aldean.

Mendi artean, berriz, Sakana (Barranka), Burunda, Betelu, Lekunberri ta Leiza, berritzen dijoazen beste ainbeste txoko ditugu. Eta aitzin. Diputazioak bazter guzitara zabaldu nahi du aberastasun au, Iruñekoarekin gelditu gabe.

Diru-alde aundiak dira ortako emanak. Aurtengo Diputazio'ko gorabera milla-millonetatik ez da jeitsiko. Eta lau urtekoa, iru aldiz gehiago jotzen dute. Zertan sartuko duten sos ori? Bideberri, nekazal-go, ta eskol-gaietan, batez ere.

Naparroko Eskol-Nagusiak (Unibersidadeak) baditu 2.600 ikasle.

Navarra lleva adelante su desarrollo. Industrias diversas nacen o van a nacer enseguida por toda su geografía. Sin hablar de Pamplona y Tudela, se industrializan en un grado o en otro Estella, Tafalla, Aoiz, Sangüesa, Viana, Fitero, Lodosa, la Barranca, la Burunda, Betelu, Lecunberri, etc. La Diputación desea que el desarrollo sea en todo Navarra y no sólo en la capital.

El Consejo Foral aprueba el Presupuesto de 1966 que ya pasa los mil millones. Los gastos extraordinarios para los cuatro años próximos serán tres veces mayores a aquella cifra. Se dedicarán a carreteras, agricultura y educación sobre todo.

La Universidad de Navarra llega a 2.600 alumnos. Nacen Escuelas Profesionales en Elizondo y Barranca. Nace también el Instituto Laboral Irabia en la Chantrea y están en su última fase de construcción la Escuela Superior de Trabajo de la Diputación en Pamplona. Nacen sobre todo muchas inquietudes en torno a este problema de la cultura en Navarra que, aunque es región sin analfabetos, tiene el nivel medio de educación un poco bajo.

Ultimamente el Sr. Vicepresidente de la Diputación inaugura el puente de Milagro y reparte los premios a Alcaldes y Párrocos distinguidos en el cuidado de los pueblos y monumentos artísticos.

El Excmo. Sr. Gobernador reúne la Comisión de Cultura. Se construirán muy próximamente un Instituto General y otro Elemental en Pamplona. Otro Instituto se construirá en Estella y otro en Tafalla. El Instituto de Tudela está finalizando su construcción. Marcilla y Peralta tendrán pronto otros Institutos Elementales, etc.

Ultimamente vuelve a ponerse en actividad la gestión para el Canal de Navarra que, tomando agua del pantano de Yesa, regará 15.000 hectáreas a lo largo de Cáseda, Tafalla, Olite, y otros pueblos.



MERKATVAK

Doneztebeko amabost aldiko merkatua

Ostirala 4 Otsaila 1966

Udaberriko egualdia, jende ugari taazienda gutxikin izanduda gaurko merkatua.

Sari o prezioetan, zerrikume bakarrak goraldi mugitu dira; beste guztietan, lenengo berak dira.

Nekazaleak oso dudetan arkitzen dira bizitzako beyak erosteko.—Orregatik, salpenta bakanak egiten dira. Beste azienda o abere guztiak, naiz bizitzakoak nola aragikoak, oso billatuak dira.

SARI O PREZIOAK: Bizitzakoak: beyak esnetan o ernari, 25.000 tik 35.000 pezetara; bey gazte o miga ernariak, 22 tik 28.000 etara; zeri bargoak, 2.500 tik 3.500 etara; zerrikumeak, 1.300 tik 1.500 etara, eta ardiak, 1.300 tik 1.500 etara.

Aragitakoak: beya 30 tik 33 pezetara Kg. bizirik; txekorrek, esnekoak 58 tik 62 etara, eta aundigoak, 48 tik 52 etara; zeri gizenak, bertakoak, 45 tik 47 etara, eta «York» 50 tik 52 etara, eta ardi zarrak, 26 tik 27 etara. Doneztebe, 4 Otsaila 1966.

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.

Baserriaren alde

Gure biotzean argi bat piztu da Naparroko Diputazioaren Principe de Vianako Sallaren asmoak agertu zaizkigunean: «Illabetero irakurgai bat baserriaren alde». Berri pozgarria dugu auzer benetan. Baserriarrik piska bat bazterturik arkitzen ziran, bañan oraingoan argitaratzen asi bear dugu.

Gure irakurgai elkarizketa bat izango da. Baserriko bizitzaren gorabera apatuko ditugu. Eta baserria esatean nekazari guziak sartzen dira. Lur lanak, azindetako joan eto-

Lanbide-Ikastetxeak (Escuelas Laborales) sortu dira Elizondo ta Sakana'n. Instituto Laboral bat Iruña azpiko Chantrean. Diputazioak egiten duen langillen Ikastetxe Aundia (Escuela Superior de Trabajo) ere eginik dago. Eta ikastetxe berriekin, gure jakite guzia zabaltzeko gosea sortu da Naparroan.

Egun auetan Diputazioako lendarriak erriak apaintzen gehienik lan egin dutenen sariak banatu ditu. Aurpegiak garbi dituzten etxeak, gero ta ugariago dira gure erritan.

Gobernadore jaunak ere kezka berak ditu gure jendea eskolatzeko asmoan. Sei edo zazpi ikastetxe berri (Institutos Elementales) egingo ditu, naski.

Eta ur-kontuan, Tafalla eta Olite inguruan izango dute —azkenean!— Yesa'ko uarki'ko (pantano-ko) ura. Lurralde aundia baliatuko da erreka berri ontaz. Zorionak.



EUSKERAREN ALDEKO SAILLA'REN BERRIAK

«Principe de Viana» Elkargoko «Euskeraren aldeko Sailla»-ren aurtengo lanak aukeratu dira:

Euskerazko esamiñak Bidaso-ko Bera-n eta Saldias-en izanen dira.

Juan den urtean sarituak (premiatuak) izan ziren euskaldun neskatto eta muttikoei premioen banakatzeko bestak Igantzi-n eta Doneztebe-n ospatuko dira.

Bi urtean bein Euskalerrri-ko Bertsolarien Txapelketa antolatzen da, aurtengoz beraz izango da. Lenbizikoz Nafarroa-k, Gipuzkoa-k, Bizkaia-k eta mugaz beste aldeko Euskalerrri-k beren txapelketa eta bigarrena izendatu bear dituzte Norgiagoko Nagusia joateko. «Principe de Viana»-k Euskaltzaindiaren laguntzarekin Nafarroa-ko seigarren Norgiagoketa antolatuko du. Bi Txapelketa txiki, edo alderdikoak, izango dira, bata Igantzi-n eta beste Doneztebe-n. Azken Txapelketa Nagusia, Nafarrokoa, Iruñe-an izanen da.

Datozen illetan onako berriak zeaztatuak izango dira eta baita beste berri batzuek ere emango dizkizuegu.

Nafarroa-ko «Estetika - Laguntza» delakoaren premioen banaketa

Joan den Otsaillaren bostgarren egunean, larunbatean, Diputazioaren Jauregian, pasatun dan urtean beren errietan garbi eta eder lanean bereziak izan ziren Aintamendu eta Apez jaunak Premioen Banaketa izan zan.

Trono'ko gelan Felix Huarte Diputazioaren presidentea, Urmeneeta, Bañon, Marko, Asiain, eta Heras Diputado jaunak, Jose Esteban Uranga, «Principe de Viana»-ren sekretarioa Jaime Del Burgo, Diputa-

boración intensa de los Ayuntamientos, Consejos y Autoridades locales de Navarra».

«Es mucho todavía lo que queda por hacer. En unos lugares más que en otros; la Montaña marcha por delante de la Ribera en este singular torneo de embellecimiento de los pueblos. Creo y espero que dentro de pocos años tenga toda Navarra el lustre y esplendor que van teniendo por vuestro esfuerzo algunos de sus rincones...» eta abar.



El Excmo. Sr. Vicepresidente de la Diputación, D. Félix Huarte, entrega el premio al Alcalde de Sorrauren, Sr. Gurbindo.

zioaren Turismo eta Liburuteguien Zuzendaria, Kandido Ayestaran, Diputazioaren arkitetoa, Alkateak, Aiuntamenduen ordezkariak, eta apezak bilzu ziren.

Uriz Diputazioaren sekretarioak Premioen emate-agiria leitu ondoren Huarte jaun lendarriak itzaldi bat esan zuen. Erderaz erranen dugu itzaldi onen zatitxo bat: «Navarra tiene la sagrada obligación de mantener su patrimonio arqueológico, testimonio de su Historia, y los valores estéticos, de su construcción urbana y rural, junto al paisaje y costumbrismo legado por la tradición, especialmente en estos momentos, cuando el desarrollo industrial, o económico puede, en cierto modo, deformar nuestra fisonomía o hacernos olvidar lo que significa nuestra personalidad, y esta obra de valoración, conservación y embellecimiento no es posible sin una cola-

Lodosa'ko Gurpegi Jaunak guzien izenean erantzun zuen. Ondoren Premioen banaketa egin zuen.

Ona emen «Ederlana Laguntza»-ren premioak edo Sariak: OHOREZKO aipamenak eta 100.000 pezetako Sariak.

Lodosa'ko Aiuntamenduak. Corella'ko Aiuntamenduak. Luzaide'ko Aiuntamenduak. eta Sorrauren'go Erri-batzarrak

Bere aldiko aipamena eta 75.000 pezetako Saria.

Aoiz'ko Aiuntamenduak.

Berealdiko aipamena eta 25.000 pezetako Saria.

Iturmendi'ko Aiuntamenduak.

Bereizkuntzak eta 20.000 pezetako Sariak.

Luis Lezaun Jaun Agurgarria, Alsasu'ko Erretoreak.

Narciso Larraia Jaun Agurgarria, Alzoriz'ko Erretoreak.

Teofilo Gaztelu Jaun Agurgarria, Aoiz-ko Mikel deunaren Erretoreak.

Nemesio Asurmendi, Lakunza'ko Erretoreak.

Ramiro Nuin, Los Arkos'ko Erretoreak.

Mikel Iraizoz, Marcilla'ko Erretoreak.

Jose Ibañez, Obanos'ko Erretoreak.

Benitu Urtasun, Oroz-Betelu'ko Erretoreak.

Manuel Rekalde, Oskoz-ko Erretoreak.

Juan Jose Gurpide, Sorrauren'go Erretoreak.

Jose Antton Gonzalez, Urzainki'ko Erretoreak.

Jose Sarobe, Bidaso'ko Bera'ko Erretoreak.

Bereizkuntza eta Amar milla pezetako Sariak.

Luzaide'ko Luis Etxeberri jaunak.

Emilio Jaurrieta, Obanos'ko jaunak.

Dominika Villanueva, Auritzberri'ko Andrea.

Berealdiko Aipamenak.

Auritz'ko Aiuntamenduak

Ciordia'ko »

Lakunza'ko »

Lesaka'ko »

Doneztebe'ko Oiz'ko Aiuntamenduak.

Ustarroz'ko Erri-batzarrak (Egues Ballean).

Zubieta'ko Aiuntamenduak

Otsagi'ko »

Diplomak eta Dominiak

Vittor Iribarren, Aoiz'ko Alkateak.

Aingeru Azanza, Auritz'ko »

Jose Antton Agirre, Ciordia'ko Alkateak.

Julio Asiain, Corella'ko Alkateak.

Martin Lopez Auzmendi, Iturmendi'ko Alkateak.

Benigno Andueza, Lakunza'ko Alkateak.

Bicente Tellechea, Lesaka'ko Alkateak.

Crispulo Gurpegi, Lodosa'ko Alkateak.

Martin Otxoa, Otsagi'ko Alkateak.

Tiburcio Ciganda, Bidaso'ko Oiz'ko Alkateak.

Andres Gurbindo, Sorrauren'go Alkateak.

Aingeru Idoate, Ustarroz'ko Alkateak (Egues'koa).

Jose Bazo, Luzaide'ko Alkateak.

Juan Baleztena, Zubieta'ko Alkateak.

ERRIZ-ERRI



LESACA

Bortz Irietako eta Naparroko erri frankotan oraindik kantatzen dan kantu onekin agurtu nahi nuke bero-bero gure aldizkari berria:

"Dios te salbe; ongi etorri, Gabon Jainkoak diola; Gabon Jainkoak diolarekin Biar ongi dakargula".

Ongi etorria Jainkoaren izenean, euskera xaarraren iraupen eta onerako.

Aldizkari berriari ongi-etorria-kin, agur, zorion eta eskerrik biotzekoenak Urmeneta jaunari, xoko ontako euskaldunen izenean. Bera baita axola eta kezkatu, iñor baldin bada, Naparroko gure izkuntza euskeraz.

Uste dut eztugula berri-eskasi-rik izanen Bortz Irietako Lesakan, gure aldizkarindako. Ez ta berri-emaille ta eskribitzallerik ere. Gaurko eta lenbiziko ontan, nondik asi? Nonbaitik beharko. Airez aire ibillia izandu da berriki Lesakako burni-lantegia Euskal-Erriko egunkarietan. Iduri zuen Japonesak, diru eta makina, burni ta tresna, etortzekoak zirela, burni-lantegiz yabetzera. Norbaitzuek erran ere, Lesakarrak japonesez eta Japonesak euskeraz mintzatzen asiak zirela. Soñu eta burrunba soberaxko izandu ote dan nago. Dena dela, yo dezagun irakurleen gogoan seurki egonen dan gaiara: "LAMINACIONES DE LESACA" delako lantegi berria.

Bortzasei urte izanik ere lantegui au eraikitzen asi zirela, ez da oraindik behar bezela akitua. Lenik sei lantoki egin zituzten. Orain seiak, berreatuak eta doblatuak daude; eta bertze bi, —340 metrokoak gutxi gora-bera—, asi berriak.

Lantokiak denak akintzen dituztenean, oraingo 360 langille-taldeak doblatuko den solasa da bizpairu urteen buruan. 700 langille Lesaka batean, ez da gauz makala.

Nundik aterako aimbertze iende, langille berri? Ameriketara eta basolanetara youten dan Bortz Irietako gaztedia bereziki beren errietan geldi baladi, lantegi berriak ornitu litzake iñongo yenderik gabe. Ala izanik ere, tekniko eta bertze langille berezi zombait kanpotik ekarri beharra izanen omen da. Errandakotik ikus leike lan eskasirik ez dela izanen nahi dutenentzat; baño bai langille teknikoak. Eta ortarako eskolak behar. Eskolik gabe ez ditake ez yende eskolatu-

rik, ez langille teknikatutrik. Au da bertze afera. Jainkoa lagun, urrengoan ontaz mintzatuko gera.



ECHARRI ARANAZ

Sakana'n (Barrankan) beti izan da itzal aundikoa, Etxarri. Beste errian etziren gauzak ikustera joateko bidea izaten ginuen gaztetatik. Zortzi urte nituela aditu nuen lenbiziko aldiz "Ama begira zazu"; eta ordukotz, ongi kantatzen zuten Etxarri! Esan ginezake, egiz, gogoan artu ginuena: etzela inguruan "ZU BEZELAKO-RIK".

Urte asko joan dira geroztik, eta inguruetako jendeak oifetako asko autsi du Etxarriko bidean: gizonak, amarretik egiten diren "feri"-ta merkatuen aitzekian; gazteak, igandetan ikasia dutelakotz bidea; aurrak, Andre Mary dela ta; ezkon berriak, etxea jartzeko.

Orai aunditu da; beso luze bat atera zaio Lizarraga aldera. Gizenduz dijoa Alsasu aldeko baztarran; baditu eskola berriak eta aipagarri dira urte auetan egin diren lanak; kale, zine, fronton eta beste. Sakanako jauntxo!

Euskera kontuan ez da lengo Etxarri! Pipia sortu zaio, Nundik edo nola? Ez da gure egitekoa. Guk dakiguna, Sakana jan dezake Etxarriko arrak. Eta negargarri litzake bere lan txarra.

Zerbait egiten da. Igandetan asi dira meza bat eskuaraz ematen. Zorionak danori! Iruñen bezela...; Madril'en ere ematen da meza ori. Eta ez da berdin...

Lantegiak (fabrikak) eldu zaizkio, erria gora dijoa, pozten gaitu Etxarriko azal-berritzeak! Jainkoak nahi-zala arimak ez iges egitea. Sakanako itzal oneko ar-bola izaten segitzeko:

"Aurrak ikas zalue
Eskuaraz mintzatzen,
Ongi pilotan eta
Oneski dantzatzen".

GOIZUETA

Goizuetarrok Eliza berritzen laxter asi bearrak gera. Goizuetako Eliza ederra eta luzero-zabaleran oso egokia da, baño urteak iñori eta ezeri ez barkatzen eta solairua eta beste zer edo zer pran-ko ondatuak arkitzen dira. Len bi kosketan aritzen dan solairua neurri berean jarri nai litzake eta ortaz gañera neguan berroxego egoteko eta itza obeki entzuteko bidea ere jarri nai lirake.

Bikario jaunak egin duan deia jarraituaz, ongi erantzuten asiak dira Goizuetarrak, oi duten bezala crantzuten alegia.

BILLERA-ETXE BERRIA

Lan berri geiago ere asiak baditugu. Parrokiko zineari erantsita arkitzen dan etxean, billera-etxe, egon-toki atsegin bat egiten asiak gera. Etxe onek, Goizuetar guzien etxea izan nai luke. Jolas-tzeko, egon-aldi atsegiñak egiteko eta denbora berean ikasteko izatea nai genduke. Bi gela edo sala aundi izango ditu. Lenbizikoan liburategia, telebisioa, barra eta denbora-pasa egoteko tokia. Bestean berriz jostallu-lekua. Arratsetan zer edo zer ikasteko bidea ere jarri nai genduke eta ortarako al ditugun bide guztietaz baliatzen saiatuko gera. Etxe onek bere itzal onurakorra Goizuetar guztien gain zabalduko al du.

PRANTZI-MUTILLAK

Amar illabete luzeetan, Prantzian ainbeste lan egiten duten mutillak, negua igarotzen etxean daude. Berriz ere Prantzi aldera begira asiak dira eta laxter joango diranak ba-dira. Amar illabete luzeren ondorengo atsedena paketsu eta osasungarri dezaiela.

PABRIKA-SOÑUAK

Goizuetan egiteko asmoa dan pabrika berria laxter asteko asmotan da. Erabakia artu aurreko gora-berak igaro ziran eta jasoko duten lekuaren jabe erria egin da. Orain asitzea palta da. Lana ezin arkituz edo arkitzeko urrutira joan bearrean dabilizan amaikari etzaie gaizki etorriko. Ongi etorria izan bedi eta aurrera ere ongi jarrai dezala.



ELIZONDO

BERTSOLARIAK

Datorren San Jose egunean Yainkoak lagun, Elizondo-ko Antxitoneko trinketean bertsolari besta eder bat egin gogo dugu. Bereartan ariko dire Euskalerriko lau bertsolari oberenak. Uztapide, Lazkao-Txiki, Xalbador eta Lasarte. Besta atsaldeko lau t'erdietan izanen da eta badugu uste egun ortan Antxitoneko trinketea euskaldun yendez beteko dela.

IZETA



ARALAR'KO AIZEAK

BIDE BERRIA

Ainbeste urtez "karreterarik ez", "karretera bai" izka-mizka ibilli ondoan, badira iru illabete Aralar'ko San Migelera bide berriari buru eman ziotela.

Esan bearrak ez, bide berri onek mendi santurako joan etorria milla aldiz erosotu ta errextu du; baño aurrerapen onekin San Migel'ek bere "giroa" galdu omen du, askok diotenez. Izan ere, lenago ikusten etziranak ikusi ditugu San Migel'en joan daneko iru illabete ontan: urteak auldutako atso ta agure xarrak (93 urteko amonatxo bat ere ikusi genun); bularretako aurtxoak ere bai, amaren edo iñudearen besotan edo aurtzaiarekin gurttoan tapa-tapa. Eta dena esan bear balin bada, eliza ta eliz inguruak jostalekutzat artu ditun ganberro lotsagabeenbat edo beste ere bai.

Atsegin artuko zuen, naski, ango mandazaiak, bere lan neketsua erabat errextu baitzaio: bost ajola orain udako sargoria edo neguko otzarengatik. Bere autoari esker, ezta orain, len bezela, izerdi patsetan edo tintirria dariola, belarriak mindurik, eskuak mauturik edo mimukaraño bustirik ibilli bearrak, nun ta eztagon metro bat elur bide berrian.

Sukaldekoai ordea lana ugarituko zitzaien, len baño askoz jende geiago joaten baitzaie bazkaldu naiean, zeozer jateko txoko baten billa. Baño toki faltan ez bazkari-rik ez txokorik ezin artuz, etorri diran bidetik itzuli bear izaten dute askok urdailluts. Geienak nai ta eziña konprenditzen dute ta itzik esan gabe, badijoaz etsirik. Badira ordea konprenditu nai ez-tutenak ere ta, ezetzkoa artutakoan, sukaldekoetz zernai esanez, asarre ta moker fi ta fu alde egiten dutenak.

Zer naiagoko genduke guk, diote sukaldekoak mindurik, denendako naiko tokia izatea baño!

OSTATU BERRIA

"Aldapak gainbera berarekin du" esan oi dute sakandarrak. Egia. Karreterak berarekin ekarri dun alderdi txar ori bere kaboz joango da, bide berriak ostatu berri bat ekarriko baitigu aurki. Naparroa'ko Diputazioak bere gain artu du San Migel'en ostatu berri eder bat egitea ta ortarako lenbiziko urratsa emana du: Naparra'ko arkitektoai esan zien norbere egitamu edo proyektoa erakus zezan, ta oietan obereña iduritzen zitzaiona aukeratua izango zala. Zia ta Arteaga, bi arkitektoena aukeratua izandu da. Guk eztugu egitamu au ikusi; baño bi jaun oien jakitetea ta trebetasuna eza-gaturik, ziur gaude ostatu berri au San Migelek eta Naparra osoak



Roncesvalles'ek bere lenengo lumeroan-gaurkoz lenbiziko aldiz-ohore badu biotzetikako oroitzarre bat ezkeintzea euskerari maitetasun eta zaletasunaren alde eredu eta ikaspede utzirik arestian mundu ontatik zeruruntz jua zen norbaiti. MARIA PAZ CIGANDA zenaren arimaren alde otoiz bero bat eskatzen dizuegu.

«Roncesvalles» en su primer número tiene el honor de dedicar —por primera vez— un recuerdo a alguien que abandonó este mundo dejando huella y ejemplo en el amor al vasculence. Os pedimos una oración por María Paz Ciganda.

merezi alakoa izango dala. Eta Diputazioak dirukontuak onartzen balinbaditu, Jainkoak onez, datorren udaberrian gauzak bere bidetik jarraituko dute, etxe berri eraikitze lanai asiera emanez. Eskerak zuri, Naparra'ko Diputazio guziz Garaiari!


TELEBISTA

Arakil, Sakana ta Burundako jendeak telebista sailoak ongi ar-tzen ez dituztela ta Diputazioak uts au bete bearez, Artxueta'ko tontorrean TV galdor-abe bat eraikitzea erabaki zun, toki oietan ezik, Arantz, Larraun, Imotz, Basaburu, Ultzama, Gulina, Txulapain eta Iruña'n bertan ere Telebixta sailoak ongi ar zitzaten.

Ortarako lanak oso aurrera di-joaz ta baliteke lerro zirtzil auker argia ikusi orduko, Artxueta'ko abe edo poste ori bere lanean aritzea. Txalogarria benetan gure Diputazioako elo au, beste gauza askotan bezela Naparroa'ko ongia ta aurrerapena billatzen eta erdixten baititu.

Bejondazuela, Diputazioako jaun guziz agurgarriak!

"ARTXUETA'KO UNAIA"



ITURMENDI'KO ERRIA

Iturmendi-k, Sorauren eta Donestebe-ko Oiz erriak bezelaxe, Nafarroa-ko Diputazioaren deiari adituz beren etxe, karrika, baztar eta etxarte guziak apaindu eta garbitu dituzte. Ona emen Iturmendi-ko zatitxo eder baten ikuspidea.

Foto oni begiratzen au da bururaten zaiguna: Au bai Nafarra ederra, poliita, txukuna Iturmendi, Sorauren eta Doneztebe-ko Oiz errien moduan beste gañerako erri guziak edertuko balira!!

Aurtxo bat dirudi
jayo berri,
ain xuri ta garbi,
Iturmendik.

Aurtxo bat, iturri
zaharrari
nunbaitik etorri
uretatik.

Aurtxo bat, aurtxo bi,
eta aurkeri:
ez baidu ekarri
ait'amenik.

Aurtxo maitagarri,
Iturmendi;
zengatik ez egin
eskuararik?



PEDRO DE AXULAR (I)

Piarres de Axular izkiriatzaile famatua entzunez bederen ezagutzen duzue. Nafarro-koa zen, Urdazubi-ko herrian sortua, GUERO izen handiko liburuaren egilea; Bere gurasoak, Piarres Daguerre eta Maria Azpilicueta ziren: (S. Frantses Xabierre-koen amaren izen berekoa). Bere izen bera daraman sortetxea oraino xut dago, baiñan berritua, leengoaren tokian.

Gutti dakigu ahatik bere gaztaroak: 40 urte beteak bazituen apez ordenatu izan zeneko Tarbes-en. Iruñeko Apezgai-tegian eta Leridan ere egin zituela bere ikastaroak bada-kigu. Baiñan zer aritu zen 40 urte bete artio?

Edo zerbait traba ezkutu ba-zena bere bidean?

Garai ayetan bertan, Euskalerriaren eta bereziki bere erri inguruko lurretan, ikaragarriko zorigaitzak gertatzen ziran: Akelarre batzarretara elemeniak zoazin aldi artan jendeak, eta orduan gertatu ziran, Pierre de Lancre (Risteguy izenekoa, damuz) epaikari zela, sorgin doakabeen erretze deitoragarriak.

Eta ayen artean, suan bizirik erretakoen izenetan kausitzen ditugu iru apezzen izenak: bi zahar, *Argibel* eta *Miguelena*, Azkainen erreak, eta *Bocal*, Ziburu-ko erretora, 27 urtetakoa.

Eta orain galde bat, beti erantzupenik gabe nere buruan gelditu dena: Zergatik ez du Axularrek bere liburuan sorginkeriz itzik aipatzen? Bekatu aundi bat izanik, eta orduko Euskalerrri-an asko edatua. Iduri du etzituela, horduko buru-berokeri eta basakeriak onartzen.

Herrian, sorginkerizko ipuiñ bat kontatzen da Axularrez; Salamanca-n ikasten egon zela, debruak leize batean zeukan Eskolan; ikasleetatik bat beretzen omen zuen debruak urtero.

Axularrek urte artan erabaki omen zuen, lerroaren azken tokian bera geldituko zela. Baiñan eguerdian ateratu behar ziralako baldintzarekin; ikasleak lerroan, leizetik kanpora badoazi, debrua ate-zain: Denek txandaka esaten dute, «Arzak ene ondokoa», eta Axularrek ere bardin: debrua orduan, kobaren paretan eguzkiak egiten zuen aren itzalaren gainera bota zen, Axular libre joan, baiñan itzalik gabe gelditu, omen.

Dena den, ipuiñak aski argi adi-arazten du Axularren izenaren eta osparen edadura. Bere biographia baten faltan arkitzen gara eta arrigarrikoa da euskalzaileen axolagabeke-ria geren goyeneko gizonekin.

(jarraituko du)

Pedro de Axular fue un escritor navarro que escribió la obra más famosa del vasconce, el Guero, que es un tratado de moral expuesto con gran altura y conocimiento, e ilustrado con ejemplos y citas de los escritores clásicos religiosos y profanos, más famosos. Nació en Urdax en 1556 y fue párroco de Sara (Labort), donde murió en 1644.

A. APAT ECHEBARNE



DEPORTES

PELOTA

Eskuzko Pelota-yokuak bi klase ditu, pelota profesionala (klase on-tan jokatzeko diran pelotariak bere bizibidea pelotaz irabazten dutenak dira), eta pelota «amateur» (klase ontako pelotariak ezdute bizibide-rik pelotaz izaten).

Pelota bizibidekoari buruz Nafar-tarrak geran aldetik esan dezakegu garrantzi aundiko urtea izango dela aurtengoa. Bost Nafar-pelotariak txapelketan agertuko dira. Eskuzko lenengo maillako zeingeiagoketan Marcelino Bergara sartuko da, eta bigarren maillakoan Erretegi, Pirola bigarrena, Lajos eta Bados arituko dira. Nafar-pelotariak bi txapelak gure txokora ekarriko balituzte... Pelota «amateur»-ri buruzko berriak baditugu ere: Españako len-biziko maillako txapelketa asi da jokatzeko; txapelketa ontan Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Errijoa, Kastilla eta Kataluña aritzen dira. Nafar-pelotariak lenen jokaldian Nagore, Irzungoa, Ezponda, Iruñekoa, Zamarreño, Eugikoa, Urtasun, auritzkoa, Egaña, Billabakoa, Mendiluze, Iruñekoa, eta Goñi, Baztangoa izan dira. Bizkaian-n kontra lau partiduetatik irutan garai atera dira gure pelotariak. Bide oni jarraitu de-ziatela desiatzen diotegu.

AIZKOLARIAK

Berekoetxea gorritiarra ta Polipaso-ren arteko aizkora apostua ikus-tera millaka yende bildu ziren Donosti-ko plazan, Ilbeltzaren 23-an.

Lan ikaragarria zuten egin bearra, buruz buru zeñek lenago moztu, ogei 60-ontzako enbor lan guzia ba-tere laguntzalerik gabe, milloi bana pezta yokatzen zutela eta gañera plazan biltzen zuten diru irabaztu-narentzako. Apostua asi aintzinean trabesak gorritiarren alde zauden. Amar lenbiziko egurrak Berekoet-xeak lasterrago moztu zituen, bainan gero bere indarrak mendratzen asi ziren, bizkitartean Polipaso-k berdindu ta aintzinatu zion, gero gorritiarra leher eginik indargabetu-rik eta eskuak larrutuak zituela lana utzi ta apostua galdutzat utzi zuten. Penagarria Berekoetxea'ri gertatu zitzaiona. Polipaso ere neketan zabilen bainan irauan zuen, eta bai ogei enborrak moztu lan guzia 90,39 minutuz eginik. Berekoetxea-k ama-seiak 78,30 tan moztu zituen.

Zorionak irabaztunari eta bai gal-tzaleari ere. Diru asko yokatu zen

eta beti gertatzen dena, irabazi zu-tenak dena espantu ta irria eta gal-du zutenak naigabea ta negarra. Yo-koa ezta errenta.

Egun ortan berean, Trinitateko plazan bertze aizkora yokota bat egin zuten, au atsaldean izan zen. Goi-zean aizkolari naparrak galdu ba-zuen, atsaldean bertze naparrak irabazi. Latasa ta Arretxea naparrak aritu ziren, Errekalde ta Arbeldi-ren kontra, bi aukerak gipuzkoarrak. Borro-kaldi polit bat egin ondoren napa-rrak nausitu. Zorionak.

APOSTUAK

Yoan den igande Urtarrilaren 16-ean, Azpeiti-ko plazan arizanak dire aizkorian ta lasterka buruz buru zein geiagokoa, Arruiz-ko Txikito ta «Arbeldi» gipuzkoarra.

Biek berdindu asi ta nork lenago egin, lehenik zortzi kana-erdiko onbor moztu eta ondolik zortzi kilo-metro lasterka. Trabesak «Arbeldi»-ren alde zauden eta onen alde yokatu zutenak etzuten utsik egin.

Aizkorian gipuzkoarra aunitzez geiago zen eta lan ontan onbor t'er-diren bentaja atera zion Txikitori, lan ori 19,27 minutuz eginik. Arruiz-tarrak zortzi egurrak 24,02 mi-nututan moztu zituen.

Txikitok onborrak moztu orduko «Arbeldi»-k bazituen kilometro bat eta geiago eginak eta naparra naiz lasterkari ona izan eginahal guziak egin ta ere etzion arrapatzen ahal.

«Arbeldi»-k lan guzia 50,13 mi-nutuz egin zuen eta Arruiztarrak 53,31-tan. Apostua ederra eta yendea ere gorki kontent batez ere sosa irabazi zutenak.

AIZKOLARIEN TXAPELKETA

Datorren Martxoaren 6-ean Do-nosti-ko plazan yokatu bearra da España-ko aizkolarien txapelketa eta zein-geiagoketa untan sei aizkolari oboerenak ari bearrak dire. Aizko-lari bakotxak 12 enbor moztu be-rrak eta nor lehenka ariko dire. En-borren negurriak auetxek dire: Lau 72 ontzako, lau 60 ontzako eta lau kana-erdiko. Sariak ere izigarriak dituzte.

Irabaztunak 100.000 pezta eta «Centro de Atracción y Turismo» delakoen edergailua. Bigarrenak 75.000. Irugarrenak 60.000. Laugarrenak 50.000. Bortzgarrenak 40.000 eta Seigarrenak 25.000. Nor Txapel-dun?



I

JENDEA NOA... HI ARA!

(Allá va Vicente, donde va la gente...)

Etxe batién bizi ziren aita, ama eta mutiko bat. Mutikoak izena zuen Jesus. Jai egun batez esan zion aitak: «artu zazu astoa, zoaz errotara eta ekar zazu iriña».

Semeak esan zion: «nik eztakit nun dagon errotara».

Aitak: «zoaz jendea dijoan toki-ra, errotara bidean jende asko ibil-tzen da ta».

Artzen du seme orrek astoa eta fan zan, aitak esan bezela, jen-deari segi eta sartu zan bere as-toakin elizara. Mezakoan asi zan apeza sermoyan eta alako batean esan zuen apez orrek:

—Zer nahi du Jesussek?

Mutikoak erantzun zion: «zaku bat irin».

Ori aditzean apez jaunak berriz esan zuen:

—Nun dago asto ori?

Eta aurrak: «Neurekin, jauna!»
Juan Jesus Echeverria (Urdiain)

ESKOLAN:

Aur batek ez du ezer ikasten es-kolan. Aitak esaten dio:

—«Alferra, alain alferra! Zer egi-nen duk ik, aunditu eta eskribitzen ez badakik?».

—«Telefonua jarri eta andik izt egin».

Lehen bazen Arneguy'n emazte bat etzema zentzuz jantzia. Etxez etxe ibiltzen zen dendari bezala, arropa apaintzen. Behin, gertatu zen Luzaideko etxe batean eta na-gusiak erran zakon, anitzetan erraiten den bezala:

—«Jarri mayan, eta yan gustian! Ez erran lengo aldiñ bezala go-siak joan zinala!».

Zizu-zazu, asten da gaixoa, eta erraiten dako nagusiak:

—«Ez!! Ez nuen erran gosiak joan nintzala! Nik erran nuen ge-hio janen nuela!!!»

Gizon bat zahartzen ari zen, nahi etzuela. Norbaitek esaten dio:

—Zenbat urte dituzu?

—Eztakit batere.

—Eztakizula? Zenbat urte dituz-jakin ez?

—Ez gaixua, ez! Ardiak eta dirua kondatzen ditiat galtzeko bildurrez; urteak ez ditiat kondatzen, jakinik ez dituztela ebasten.

«RONCESVALLES» admite y agradecerá colaboración de todos los navarros que se interesen por el vasconce. Los originales deben venir a máquina y pueden ser bilingües. Cualquier tema actual o retrospectivo puede ser interesante. Expresamos de antemano nuestra gratitud a los futuros colaboradores.

«Roncesvalles»-ek euskeraren alde lan egin nai duten nafartar guziak onartuko ditu bai ta eskerronak emango ere. Idazlanak (izkribulanak) «makina» bidaldu bear dituzte eta bi izkuntzetakoak (euskeraz, jakina, eta erderaz nai baldin bada) izan ditezke. Edozein gaurko edo gibelaldiko gaia jakingarri eta intresduna izan diteke. Alde aurretikan gure gero-ko lankidei gure ezagutza eta eskerrak adierazten eta agertzen dizkitotegu.

Si desea recibir en su casa esta publicación envíe este Boletín a: INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA. Calle Ansoleaga, 10. PAMPLONA

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don

con domicilio en la localidad de

Calle N.º

desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suple-mento «RONCESVALLES».

AÑAMENDI



NAFARROA-KO BIZITZA.

Nafarroaren bizitzari dijoazkion gaiak ibilliko ditugu txoko ontan. Nafarroaren bizitzan, mendeak zear, gertatu diran gora berak tokia izango dute. Nafarroaren eta Nafartarren izena goraiatu duten gertakizunak agertzen saiatuko gera.

Erri baten artu-emanetan, joka-bideetan, gertakizunetan, erri ortako izkuntzak zer ikusi aundia dauka. Erri batzuek besteetatik berexen dituan «zerbait» ori, zati aundi bat beintzat, izkuntzari zor zaiola uste dugu.

Gure Nafarro zarraren bizi-bidean, izateko moduan, Euskerak izan duan eta oraindik ere duan ikustekoa ezin diteke ukatu. Gure artean erdaldunduenik arkitzen diran errietan bertan ere, non-naiitk euskal-usaia, euskal-kutsua dario. Abizen edo apellidoetan, oiturretan eta erdera josteko moduan bertan, euskalduntasuna ageri da. Nafarroa euskaldun izan dala eta gai askotan Nafarroak euskaldun jarraitzen duala, ezin ukatu.

Euskarari buruz amasei mendetik ona izan da Nafarroa-ko atzerapiderik bildurgarriena.

Zer dala-ta, Euskeraren atzerapide au?

Alde batetik (nere iritziz latzena), eskola palta. Euskal-eskolarik ez dugu izan. Ogeigarren menderaño Euskerarik etzala landu esan genezake. Maixu askotxok gure izkuntzaren kontra egin duten lanak ere, bere ikustekoa izan du eta ez txikia gañera. Ordukoari begiratu

gabe, gaurko egunean bertan askotan zer gertatzen dan ikusten dugu. Orain urte gutxi Inspektore batek orra zer kontseju utzi zion baixu bateri eskribituta: «Eusker-a menderatzen eta irakurtzen ez dakitenei erakusten saia zaitez». Oro nere begiek in ikusia dut.

Beste aldetik Eliz-gizonak ere askotan kaltegarri izan dira Euskerarentzat. Errextasunari ta komodida-deari begiratu, Euskeraren aurka aritu diran amaika Eliz-gizon izan dirala eta oraindik ere ba-dirala esan bearrean arkitzen naiz. Elizaren Liturji-berritzea dala-ta, eukalerrietan jo ta ke erderaz ari diranak bat baño geiago ba-dira. Ta... Elizaren legeak zer?

Irugarren arrazoa euskaldunon utzikeria. Emaku-meak buru dirala, euskaldunak gai ontan utzi-utziak izan grea. Erderaz itzegite ori «eleganteagoa» iruditzen dalako edo, euskera utzi ta erderara errex jotzen dugu. Beren burua «Euskal-zaletzat» agertu nai luketen asko-ren seme-alabak «birri-barra» erderaz ikusita, zer esan? Askotan beintzat gurasoan paltaz dala eta olakoen euskalduntasuna auntzaren gaberdiko etzula bezalakoa dala. Iñoz euskalduntasun ori maitatu ba-zuten, aspaldin pikoteara joan zala.

Beste askoren artean, Euskera etxetik bota duten iru arrazoi nagusienak aukeratu izan dirala uste dut. Gaizki, esanak barkatu... eta kopradikoa ez danak argirik ez dezala artu.